

Estitxu

Estitxu Robles-Arangiz 1944an ekainaren 4an sortu zen Beskoitzen, Lapurdin, eta Bilbon 1993an hil zen. Espaniako Gerra zibilean faxistak etxean sartu ondoren, Bilbotik erbestera jo behar izan zuen Estitxuren familiak.

Etxeko artista giroak arrasto sakona utzi zuen Estitxurengan. Gitarraren laguntzaz, plazaz plaza aritzea erabaki zuen. Estitxuk 25 urteko ibilbidea egin zuen bakarka, eta Euskal Herrian ez ezik, oihartzun handia lortu zuen Venezuelan eta Mexikon ere.

Bere azkeneko kontzertuan, Irungo Amaia aretoan “Laster artio, Euskal Herria!” erranez agurtu zituen entzuleak. Bertze disko bat egitea zuen buruan, baina handik hiru astera hil zen, otsailaren 24an, minbiziak jota, Basurtuko ospitalean.

Hemen kantu ospetsu batzuk: Agur Maria, Kattalin, Eskualdun makila, Udaberria, Goiz goizean...

Hau da guk aukeratu dugun kanta: Eskualdun makila.

<https://www.youtube.com/watch?v=0agw9F1YBO4>

Letra

Begiztatua nuen aspaldi mendian
mizpirondo xuxenbat sasien erdian.
Handitzerat utzidut eta harekilan
aurten egin dut nere eskualdun makila.

Bat bi hiru lau orain
nik ere nik ere badut eskualdun makila
orain nik ere badut eskualdun makila.

Askotan ikusi dut ibilki herrian
aintzindari erneak ezpata gerrian.
Bekaztia ningatik urrun joan dadila
zeren eta badut nik...eskualdun makila.

Bat bi hiru lau
orain nik ere badut eskualdun makila
orain nik ere badut eskualdun makila.

Parabara papa.....

Bi erronden gainean joaten ez ikasi,
burdinbidetan, aldiz, sabela nahasi.
Non dut ene ene karrosa? Non dut berebila?
Oinez beti banoa...eskuan makila

Bat bi hiru lau
orain nik ere badut eskualdun makila
orain nik ere badut eskualdun makila.

Egileak: Joseba Etxaniz eta Naroa Zabaleta